

Aretxagazeta

Internet: www.saretxo.es/aretxagazeta
e-mail: aretxagazeta@saretxo.es

Aretxabaleta • 1998ko maiatzak 28 • 145. zka.



**Golf zaleak
gure herrian**

Iturririk iturri: Jesus Atxa Ohorezko Euskaltzain ■ Iritzia: Mariatxen Urkia

Ongizate Aurrezpena



Aretxabaletako Caja Laboral-Euskadiko Kutxak "Grunding" telebista bat saritu du, Kutxazain automatikoan libreta erabil-tzeagatik.

Saritua: **Lucas Cruz Remedios.**

Caja Laboral-Euskadiko Kutxak, zerbitzu zabalagoa

Gure zerbitzua zabaltzen dugu:

Atxabaltar guztien esku, gure bigarren kutxazain automatikoa jartzen dugu. Honek zure denbora aurreztea, eragiketak erraztea eta azkartzea ekarriko du.

Bertan, txartelak zein libretak erabili ahal izango dituzu. Kutxazain barri honek "VISA CASH" txartelak betetzeko aukera ematen dizu.

CONCHI GALLASTEGI
Caja Laboral/Euskadiko Kutxa

••• Aurrezteko
••• modu
••• berria.



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Erantzun zuzena




Ezagutzen duzu Golf-a?

Aitor Garcia

(Ikaslea)

Bai gutxi gora-behera. Makila batekin pelota bati jo, eta zulo batzuetan sartzea da helburua. Ez dut sekula jolastu, baina gustatuko litzaidake.



Begoña Urkia

(Langilea)

Gutxi. Ez dut inoiz jolastu. Telebistan ere ez dut ikusten aspertu egiten naiz eta. Zelai-etan ibiltzeko polita dirudi, baina ez beste ezertarako. Inguru honetan ez dago golfa praktikatzeko aukera handirik.



Puri Beltran de Heredia

(Langilea)


Ez dut ezagutzen, eta telebistan ere ez dut ikusten. Interesgarria izan behar dela iruditzen zait, praktikatzen dutenak oso gustora ibiltzen dira eta. Hasten den guztiak jarraitzen du.



German Gonzalez

(Langilea)

Bueno, baina ez asko. Arauak adibidez ez ditut ezagutzen, gainera ez zait oso interesgarria iruditzen. Baliteke garestia delako jende askok ez praktikatzea.



e s k u t i t z a



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria



Aretxabaletako Udalak diruz lagundutako aldizkaria

Zorixonak!

Zorixonak! Aretxagazeta eiten dozuen danori. Inoz irakurri ixen dot zeuen aldizkari-papeli, baina gaur artien ez dot interneten ikusteko aukerarik euki, bertan egoanik ez nekixen eta.

Sorpresa handixe hartu dot eta, irakurri ahala, gero ta gehixau poztu naz zelako ondo einde dauen ikusitte. Benetan dinotsuet, kriston diru pillue daukien egunkari eta aldizkari askok ez daukie zeuena moduko web orrialde onik. Zeozer hobetzekotan, zera eingo neuke: aurreko aleak ikusitakuen, egun hori beste kolore baten ipini, zeintzuk irakurri doguzan jakin ahal ixeteko. Ondo egongo litzake baitte, egun zehatz bat aukuratutakuen, zuzenien azala agerçtzie. Gauza hauek ez daukie garrantzi handirik eta, gehixenbat, gustuen arabera iken leikez; beraz, ez pentsatu inolako kritikie danik, laguntzeko asmuaz bakarrik ein dot eta.

Ah! Ni neu ez naz atxabaltarra (berton lagun handixek badaukuaz be) atxondotarra baino, baina interes handixaz irakurri dot Aretxagazeta eta asko poztu naz.

Zorixonak barriro be.

DAVID COBOS

Berriro ere lapurretak

Berriro ere kexak heldu zaizkigu Aretxagazetako bazkide batzungandik. Badira herrian besteen buzoietatik Aretxagazetak ohozten dituztenak. Guk ezer gutxi egin dezakegu horren aurrean, hori egiten dutenei zera esan baino: Merezki al du urtean 1.500 pezetagatik horrela ibiltzeak?

ARETXAGAZETAKO BATZORDEA

Aretxagazeta aldizkaria. **Argitaratzailea:** Aretxabaletako komunikabideak-Loramendi elkarte. Kultur etxea, 151 postakutxatila Aretxabaleta. Tfnoa: 943 79 01 05. **Erredakzio-kontseilua:** Irune Iturbe, Mirari Altube, Alberto Izagirre, Gurutze Larrinaga, Koldo Zubizarreta, Aitor Irure, Gotzone Arrese, Gorka Etxabe. **Erredakzio arduraduna eta publizitate arduraduna:** Iratxe Bengoa eta Amaia Gastañaga. **Kolaboratzaileak:** Mikel Arroiabe, M.J. Aretxaga, Andoni Arana, Jennifer Nelson, Amaia Murgiondo, Amagoia Lasagabaster, Joseba Lopez de Armentia, Josu Urkia, Inma Miguel, Aitor Antxia, Iñaki Urreta, Loramendi E. E., Udala, Euskaltegia. **Inprimategia:** Eguzkigraf. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper birziklatuan egiten da. **Lege gordailua:** SS378 / 94. **ISSN:** 1134-2609. **Internet:** www.saretxo.es/aretxagazeta **e-mail:** aretxagazeta@saretxo.es. Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.



Otala-Zelai eta Euskeraren egunari errepassoa!!!

Dagoeneko Euskeraren eguna eta Otala-Zelaiko erroneria izan zirenetik egun dexente pasa badira ere, seguruenik, askok ez dute jai hauek ahaztu. Dantza, jolasak, bazkaria, trikitilariak... bi hitzetan esanda, jai giroa!, besterik ez. Jai giro euskaldun eta sano-sanoa.



Hori bai estiloa hori! Edonor sagardoa edatera animatzeko modukoa!!!



Goizean goizeatik soinu eta panderoaz, herria girotuaz. Tripitatai-tripitatai...trikitilari hauekin beti alai!

Burua bero-bero, baina hala ere ederto asko pasa zuten bazkarian! Badakizue, Jan eta lo Potolo!!



Txalapartak ala kanpaiek atera zuten soinu indartsuagoa?

OSKAR

HARATEGIA



Loramendi, 1
☎ 943 79 71 69

IBARRA

ESTANKOA



Tabakoa eta ikasmateriala

Bizkaia, 3 Tfnoa: 943 79 23 77

M

MEMESA

Industri hornidurak

Tfnoa: 943 71 24 11
ARETXABALETA

PAGALDAI

Opari denda

Durana, 33 ☎ 943 79 10 14
ARETXABALETA



Zezenak dira, bel-beltzak dira, harrapatzen bazaitu, harrapatzen bazaitu...
Baietz hemendik urte batzuetara, bertako partaide guztiak San Ferminetan ikusi!!!



Nork esan zuen egun ez dela haurrik jaiotzen?
Guztiei jaten emateko ere...
Eskerrak noizbeinka honelako ekintzak antolatzen diren.



Leixargarateko aterpetxearen alde jarritako tabernan txistorra prestatzen hasi ahala, saldu ziren guztiak. Umm... gogoratzeaz bakarrik... Tabernatik ateratako dirua ondo etorriko zaie Leixargarateko txabolan egin diren konponketa guztiak ordaintzeko.



Txulalai-Txulalai...hauek bai ondo dantzatzen dutela bai!
Handitzean guztiak dantzatuko dute Larrain dantza? Ea horrela den!.

DOIKALSE

**Elektroerosio
lanak**

Basabe Poligonoa C-1-1
Aretxabaleta
Tfno: 943 79 82 44

**BENGOA
URDAITEGIA**

*Bertako okelak eta
mortzilak*

Durana, 9
Tfnoa: 943 79 19 79



**Lurrindegia
Opari-denda**

Mitarte, 18 ☎ 943 79 38 59

**Mobiliario
ARENZA**

**ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA**

Bizkaia,1 - Tfnoa: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Jose Mari Armentia Aretxabaletako EAko lehendakari berria

Jose Mari Armentia EAko lehendakari berria da. Berak ordezkatu du, beraz, azken urteotan Pedro Mendietak bete duen lekua. Maiatzaren 15ean egin zuen EAk Armentiaren aurkezpen ekitaldia EAko alkartetxe berri-tuan. Bertan izan genituen EAko Gipuzkoako lehendakaria den Jon Goikoetxea, Pedro Mendieta eta Jose Mari Armentia bera.

Berrikuntza prozesua

Ekitaldian berrikuntza prozesu batetaz berba egin zen bereziki. Bailara honetan EAk izan duen presentzia indartzeko garaia zela azpimarratuz.

Alderdiaren presentzia indar-terako orduan Jose Mari Armentia oso baikor azaldu zen. Bere hitzetan, "Aretxabaletako gazte-diak badauka lanerako gogoia", eta bere aurreko legegaldiko espe-

rientzia positiboak konfidantza haundia ematen dio alderdia herri mailan integratzeko.


Honekin batera, EAko helburuak aipatu zituen: gaur egungo zinegotzien lana hurbilagotik jarraitu eta lagundu; alderdiaren inguruan mugitzen den jendearen lan dinamika berreskuratu; hurrengo hauteskundeak gertatu eta partidu dinamika herrian integratu.

Gellaotarrekin akordioa

EAko lehendakari berriak, Gellaotarrekin arazo honi irtenbide bat bilatzen saiatu behar da, ez baitute horregatik eskoriatzarrekin haserretzeko asmorik. Beraz, ahal den neurrian, bana-keta sortu aurretik, konponbide egoki batera heldu beharko litzateke.



Jose Mari Armentia lehendakari berria, Jon Goikoetxea Gipuzkoako EAko lehendakaria eta Pedro Mendieta, lehendakari ohia



Hiru arrapala jarri dira herriko plazan

Kurtzebarri eskolaren eskariz, eta oztopo arkitektonikoak gutxitu asmoz, hiru arrapala jarri ditu Udalak herriko plazan, horietako bat Herriko Plaza 1 zenbakiko edifizioko sarrera nagusian.

Azken honetan 17 zmtako aldapa dago, beste bietan, berriz, 22 zmtakoa.

Honekin ezindu fisikoek euren egunero-kotasunean dituzten arazoak gutxitu nahi izan dira.



LASAGABASTER-en

AUKERARIK ONENA

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE TFNOAK.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

Bidezko Merkataritza denda, Arrasateko Hiper Eroskin

Hirugarren Munduko produktuak salduko diren denda honen bultzatzaileetariko bat, Aretxabaletako Hiruatx taldea da

Bidezko merkataritza, Hirugarren Munduarekin harreman ekonomiko berri bat sortzeko ahalegina da. Hirugarren Munduko hainbat herrialdeetako produktuak salduko dira.

Dagoeneko, Bidezko merkataritzak 3000 denda ditu Europa mailan, 45.000 salmenta leku, 50.000 bolondres eta 100 erakunde komertzio mota hau bultzatzen dutenak. Hauekin, azken urteotan, 35.000 milioitako salmentak egin dira.




Ekaina hasieran, Arrasaten

Datorren ekainean, Bidezko Merkataritza denda bat zabalduko

da Arrasateko Hiper Eroskin. Bertan, 30 mota ezberdinetako janari eta edariak, kotoi eta artilezko jantziak eta artisauteza egongo dira salgai.

Produktu hauen erosketarekin, pobrezian bizi direnen bizitze baldintzen hobekuntzan partehartuko da.

Inguru honetako lehen Bidezko Merkataritza denda sortzen aritu diren taldeak, Arrasateko Harreman, Bergarako taldea, Oñatiko Banoia, Eskoriatzako Atxorrotx eta Aretxabaletako Hiruatx izan dira.



Zikoinaren bisita

Zikoina ez da gure artean asko ikusten den hegaztia, baina orain bi aste inguru bisitatu gintuen batek. Azatza eta Larrinuko auzoetan behintzat ikusi zuten. Argazkia ez da Gasteizeko Gamarra auzoan ateratakoa, Larrinuko kanpandorrean baino. Bertan egon zen zikoina. Baliteke, hurrengo baterako lekua bilatu asmotan etorri izana. Kontua da, Leonardo Garaik kanpandorrean dotore-dotore zegoela atera ziola argazkia.

Ahateak Deba ibaian

Zikoina ez da herrian agertu zaigun hegazti bitxi bakarra. Deba ibaian ahateak ditugu protagonista.

Ahateak aipatu eta berehala Urkuluko urtegiarekin lotzen baditugu ere, hilaren 14an Aretxabaletako herri barruan bikote bat agertu izana berri ontzat eta ilusio-nagarritzat jo beharra daukagu. Galartza aldetik datorren Baskolia erreka Deba ibaiarekin bat egiten duen lekuan, hau da, tubo fabrikaren aurreko presan, basahate bikotea (*Anas platyrhynchos*) ikusi dugu berarekin hiruzpalau txito zituela.

Notiziak bitxia dirudien arren, iaz ere leku eta garai beretsuetan agertu omen zitzaizkigun ahaterik. Bi aldiotan Javier Aranguren eman digu abisua eta biziki eskertu nahi genioke hemendik.

ARGAZKI

Urkiola

Tfnoa: 943 79 39 20
ARETXABALETA

GARBITU S.
COOP.

*Garbiketa
orokorrak*

Errekabarren 3- Behea
Tfnoa: 943 79 01 28



Esko Sport

**Leintz Bailarako
kirol denda**

Intxaurtueta, 5
☎ 943 71 52 96 ESKORIATZA

Larunbat arratsaldetan
zabalik

Jesus Atxa

Elkarrizketa egiteko telefonoz harremanetan jarri ginen, gaur egun Iruñean bizi den Jesus Atxa atxabaltarrak. Oraintxu Euskaltzain ohorezko izendatu dute, Iruñean ikastolen alde egindako lanagatik. Faxes galderak bidali eta erantzuna jasotzeko ados gelditu ginen. Emaiza: hauxe izan zen. Bere horretan utzi nahi izan dugu testua, gogoz irakurtzen baita harek idatzitako gogoramen eta bere bizitzari buruzko nondik-norakoak. Gainera gaur kasualitatea bada ere, bere zorion eguna da, beraz, zorionik beroenak beretzat!

Nire jaioteguna, aho batez, esaten didatenez 1920ko maiatzaren 28an izan zen. Munduan jende gutxi izaten du, nik bezala, Atxabaltan jaioa izateko Jainkoaren grázia berezi hori, eta jaio ere ez edozein kaletan, gaizki ez banabil **“Cardenal Durana”** izeneko kale anpatuan gainera.

Han **“Burgalesa”**ren etxe aurrean, gogoan dut oraindik **Raimundo “burgalesa”**, burusoil, bere blusa luzeaz alondigatik orgaz ardo zaragi eta boladun gaseosa botil kaxak karriotan.

Etenik gabe, 14 urte arte Aretxabaletako eskolan egin nituen ikasketak, Santiago Ondarra maixu zelarik, eta ez uste, herriko mutiko guztiak-60 inguru-gela batean pilatuak egon arren, ikasi ere, ikasi egiten genuen. Ez alferrik goizean sartu eskolan eta belauniko **“Iluminame Señor”** otoitz egiten genuen. Argiak eta garbiak ateratzen ginen eskolatik.

Larunbatero, eskolan sartzeaz batera, denok zerrendan jarri eta banan-banan maixuak azkazalak, lepoa eta belarri zuloak begiztatu eta aurrera edo atzera botatzen gintuen, makila eskuan, eskuak eta belaunburuak urratu artean, berriz marruzkatzera.

Maixuak egunero hainbeste denbora igarotzen zuela egunkaria irakurtzen klase ordutan eta nota hartu eta Udaletxera bidali genuen paper txo bat horren salaketaz. Ez zuen halakorik merezi; baina Errepublika

garaia ere bazen - eta guk ere itxuratxo bat eman egin behar behintzat.


Baina, gure benetako eskola kalea zen.

Ez aspertzeko guk ez genuen telebistaren beharrik; geu ginen **protagonistak: “Ipurzuriak” eta “Ipurbeltzak”**, kontrako bandera eta guzti, igandero biltzen genuen txakurraundiekin, **Edurne Galdosek** bordatua gainera.

Ez zegoen ez txori ez kabi eta ez pizti motarik ezagutzen ez genuenik; hura zaindu beharra, elur egunetan, batik bat, pekorotzez ez taliak jartzen genituen, **“Mantxuenean”** erositako zepoak...

Suge, ziraun, zirtzil, kakalardo, kirikio, ogigazta, apo eta gainetiko piztiak lagun genituen eta baita inguruneak zakur eta katuak ere. pizti kontuetan, Aretxabaletan maixu **Lonbide** genuen.

“Etenik gabe, 14 urte arte Aretxabaletako eskolan egin nituen ikasketak, Santiago Ondarra maixu zela”



Euskaltzain ohorezko izendatu duten atxabaltar baten oroitzak

Makats eta melokotoirik onenak Geilau aldean; sagarrak Bazterralden; mizpilak Larrinben; gaztainak Oron eta Lauzitxan; urrak Errotaberri gainean; asto okaran onenak Zubiko hortuan, intxaurrak Basabe bidean; perretxikuak Apotsaruntz; dena genuen ikasia. Erreka bazterrak, **Filipitxikineko pontsua;** etxe osteak, **Porruko txara, dena Landetatik Muxibarreraino.** Arrasate hiria genuen gure abenturen muga: hau hiri handia zen. Horra joatea izaten zen gure ihesik larriena. Etxean jakin gabe, beldurrez joaten ginen **“Rintintin perro lobo”** tebeoa eroatera, ez baitzen artean Atxabaltan tebeorik saltzen. Noizean behin **Otzukoen** garajeen Charloten pelikula mutuak eta euskarazko antzerkiren bat (‘Lore bat loitan.’) herriko artistekin aurkeztuta ikusi, tartean **“Santixeneko”**

“Nere bizitzako gogoaldi polit eta beteena da Atxabaltako aro hori”

tarta baten zozketa egiten zelarik eta pozik.

Nere bizitzako gogoaldi polit eta beteena da Atxabaltako aro hori. Jolasak denetarikoak; neguan eta euriaz eleizpean: pote-poteka, marroka-txorro-morroka, soka, lurrean klarioiaz egindako laukietan saltoka. Lapur-lapurka, lokatza artean inkaka, txirikiletan, futbolea, bolotan eta ordu libreetan, ia ia egunero, borrokan.

Pilotak ere geuk egiten genituen,



Aretxabaletako oroitzapen onak gordetzen ditu Jesusek

potroa **Erromualdoren** zapatagintzako “disoluzioa” ariaz bilduz.

Alpargata zaharrak ematen ziguten estutasunik haundienak eta pilotan ortozik arituarren ere, ez genuen urduritasun makala izaten etxerakoan alpagaten bizarrak moztu eta josten.

“Solfeo de los solfeos” metodoa dena buruz, sakristan Raimundo Arrizabalaga apaizak erakutsia; dotrina osoa euskaraz-gutxienez 200 galdera buruz ikasia. Nola ez bada **Cristobal Altube “Txindurri”** (bere guante zuriekin) opera kantaria herrikoa izanik. Tiple pila koruan, nahiz zortzi ahotssetara, nahiz gregorianoa abesten.

Larunbatetan aitortzak errenkadan, pekatuak mandamentuz mandamentu sailkatuak.

Igandetan meza; arratsaldez bizperak latinez kantatuak “**Dixit Dominus meus**” elizatik atera eta **Alkurren gramola** entzun; Arrasateko **Tololori barkiloak** erosi, neskatilaren bati txatxumurka egin; markuletaren ogiarekin kafesne zopak jan, goitik behera barrenoian garbitu, hiru “Agur Maria” errezatu, pixa egin, ur bedeinkatuz aitaren, bada ezpada ohe azpian begiratu eta pozik ohera. Hitz batez esanik: gaurko “Pedagogia Activa”ri aurrea hartua genion.

14 urtekin Durangora jesuitetara joan edo eraman ninduten ikastera. 16 urterekin (1936) gerra garaian, azaroan Belgikara, jesuitetara.

“Euskaltzaindiak ohorezko bazkide izendatzeak egia esan halako xirimiri gozo baten poz freskoa ematen du. Eskerronez hartzen da”

17 urtekin (1937) Caracasera bidali ninduten.

19 urterekin Bogotara ikasketak jarraitzera. Hemengo Unibertsitatean amaitu nituen “Filosofia eta Letras” eta “Pedagogia” ikasketak.

23 urterekin utzi jesuitak eta nire

kabuz Caracasera itzuli nintzen.

Hor topo egin nuen Eusko Etxean euskaltzale ezin bikainagoa zen Ion Oñatibiarekin eta haren laguntzaile izan nintzen “ARGIA” izeneko aldizkaria euskara hutsean argitaratzen hasi zen orduan, Caracasen aspalditxoan neraman barnean sartua euskalduntasunaren artxo.

1945. urtean etxeratu nintzen Elorriora. Elorrio eta Aretxabaleta artean igaro nuen urte pare bat edo, eta beste askoren artean Juan Luis Izagirre eta Lontxo Peña izan nituen adiskide eta hortik UDA sortuz nere futbolerako edo mendizaletasunerako grina; ez orratio Mariano Oterorena beste.

1960an murgildu nintzen erabat Euskal Kultur eta ikastola munduan Bilbon nuelarik (Ediliko zuzendari) nere abiapuntu.

Hortik Atxabaltako ikastola sortzeko ere Sarasua eta Angel Gabi-londorekin izan nituen harremanak, lehendabiziko urratsak ematen has zitezen.

1970. Lehendik nituen Iruñekoekin harremanak eta hala deitu ninduten “San Fermin Ikastolako” zuzendaritzarako eta Nafarroan sorberri eta sortzeko zeuden ikastolen pizkortzaile. Suerte eta ohorea niretzat, euskeraren alde lan egin ahal izatea.

Jubilatuz gero ia adinaren legortean, Euskaltzaindiak ohorezko bazkide izendatzeak egia esan halako xirimiri gozo baten poz freskoa ematen du. Eskerronez hartzen da. Orain ere egunero ordu batzuk Nafarroako Ikastolen Elkartearen egoitzan ematen ditut, nere lanerako daukadan txokoan eta gehien batez, geroari begira, Ikastolen Historiari dagozkion paper artean buru-belarri sartua, bide batez Ikastola bakoitzaren historiario liburuak idatziz.

Nafarroako euskararen egoera eta hemengo “Anormalizazioari” buruz, agintariak alde batera utziz baikorra da herriak daraman lehia, baina, gai korapilatua izanik, nahiz eta inon ez egin, nonbaiten egiterakoan, zuekin egingo nuke gustoren elkarrizketatxo bat... baina Atxabaltan.



Musikaren garrantzia

“Musika heziketak dibertitzeko aukera eskaintzeaz aparte, aisialdiko denbora eta eguneroko bizitza hobeto antolatzen laguntzen du”

Aretxabaletan musika eskolak egiten dituen ekintzen inguruan dagoen ezjakintasuna kontutan harturik, hauen funtzioa eta zergatia argitu nahi dut. Bi hitzetan esanda heziketa musikalaren beharra. Lehenik eta behin musika eskolako guraso batek batzar batean egin zuen hausnarketa aipatuko dut, berau udaletxera hitzarmena sinatzeko bidalitako txostenari gehitu ziztzaion, oraindik tratatzeko da-goena.

Egiten dugun galdera honako hau da: zein da heziketa musikal baten garrantzia Aretxabaletan? Ondorioak honako hauek lirateke:

- Pertsonaren heziketa integral baterako garrantzi haundikoa da heziketa musikal. Aisialdi dibertigarri eta sortzaile batez gozatzeko aukera eskaintzen du. Pertsonaren garapen etengabea aisialdia egoki erabiltzea gero eta garrantzitsuagoa da.

- Musika talde desberdinek, pertsonen arteko harremana sendotzen laguntzen dute, horrela herri bateratuago baterantz zuzenduz. Abesteko elkartzan den herriak, elkartasun eta bakezko bidea

errazten du.

- Euskal Herriko balore historikoetako bat musika izan da. Musika eta kantuen bidez euskaldunak bere sentimendu onak adierazi ditu.

-Familia batzuetan, musika kultural bat izateak, hau da, elkarrekin abestuz, edo eta instrumenturen bat erabiliz, integrazio hobea bat bul-tzatu da.

-Abesbatzek, bandek, orkestrek eta beste musika taldeek, herri bati kohesioa emateaz gain, ospea ematen diote, herriaren izena zabalduz, beste herri batzuekin harreman interesgarriak sortaraziz.

- Musika heziketak dibertitzeko aukera eskaintzeaz aparte, aisialdiko denbora eta eguneroko bizitza hobeto antolatzen laguntzen du.

Musikarekiko heziketak herriari eskeintzen dizkion aspektuak zehatz mehatz aztertu ez baditugu ere, arlo hau garatzeko erabilitako baliabide komunitarioak **“errentabilitate”** sozial altua dutela uste dugu, azken finean, herri integratu eta jantziago bat sortzeko laguntzen baitu.

MARIATXEN URKIA

**OSKAR
GARAJEA**

Basabe Poligonoa, A-2-4
Tfnoa: 943 79 98 74
ARETXABALETA

**ARETXABALETA
ITURGINTZA**

Durana, 16-Tfnoa: 943 79 17 53
ARETXABALETA

CONSUM EROSKI
BETI ZURE ZERBITZURA

Durana, 8 Aralar z/g
Tfnoa: 943 77 17 06 Tfnoa: 943 77 17 04

ARETXABALETA

Golfa, ez da beste kirol batzuk haina praktikatzen gure artean. Agian, jokatzeko leku gutxi daudelako; beste batzuk diotenez kirolik elitistena da berau. Hori bai, jokatzeko dutenek zera esaten dute: behin hasitakoan jarraitzeko gogo sortzen dela.

Gure herrian bada golfean jokatzeko duenik. Gaurkoan Mikel Katania, Mikel eta Jon Galdos herriko hiru gazte txoren eskutik, golf-a hobeto ezagutzeko aukera izan dugu.

Hiztegira jotzen badugu, honela definitzen da golf-a: lur-sail batean dauden zuloetan makila baten bidez pelota bat sartzean datzan kirola. Eskozian du jatorria baina gaur egun Estatu Batuetan garatu eta praktikatzen da gehien, Britainia Handiak jarraitzen duela. Hala ere, munduko beste herrialdeetara zabaldua dago: Kanada, Australia, Zelanda Berria eta baita Europako hainbat estatutara ere.

GAZTETATIK HASI

Beste kirolean moduan, teknika hartzeko eta ikasteko, golfa gaztetatik praktikatzen hastea da egokiena. Mikel Galdos eta Mikel Katania gaztetxoak zirela hasi ziren pelotari lehen makilakadak ematen. Mikel Galdosek bederatzi urte inguru zituen, bere gurasoekin Legutianoko Larrabeako golf klubean golfa praktikatzen hasi zenean. "Gurasoekin etortzen nintzen eta denboraz gero eta gehiago gustatu zitzaidan". Horixe bera dio Mikel Kataniak ere. Kontua da, hasi eta "engantxatu" egiten duela, jokatzeko dutenen adierazpenetan. Galdosek eta Kataniak golf ikastaroak egin zituzten klubean bertan, praktika hartu eta egoki jolasteko. "Ikastaroetan teknika ikasteaz gain, egiten ditugun erruak zuzentzen zizkiguten".

Jon Galdosek, berriz, aurten



Golfean, zulotik zulora

hartu dio gustua kirol honi, eta hortaz, ikastaroan hasi da. Orain artean, berriz, aukera izan arren, ez zitzaion oso interesgarria iruditzen baina badirudi aurten bere anaiari moduan benetako grina sortu zaiola kirolarekiko.

72 KOLPE

Aurrean aipatu dugun moduan, golfa kirol eskoziarra da jatorriz, eta bertan erabiltzen den lexikoa ere ingelesa: drive, green, club...

Egia esan, ez da oso kirol praktikatua euskaldunon artean. Hasiera batean eliteko jendeak praktikatzen zuen gehienbat, baina jadanik aukera zabalagoa da, golf zelai publikoak daudenez geroztik.

Baina zertan datza kirolak? Garrantzitsuena zera da: irteeratik (tee-shot) helmugan (green) dagoen zuloan, pelota ahalik eta golpe gutxien emanda sartzea da. Ibilbideak hamazortzi zulo ditu; bere luzera 5,5 km eta 6,5 kmtakoa

izanik. Profesionala izateko 18 zuloak 72 kolpetan egin behar dira gehienez, eta honek handicap 0 (golfean profesional batek duen maila) izatea suposatzen du. Handicap-a lortzeak estatu mailako txapelketetan jokatzeko aukera ematen du, baina hemen ere mailak daude. Handicap 28 da altuena eta hau jeitsiz joan behar da gero eta hobea izateko.

HANDICAP MAILA

Gaurko gure protagonisten kasuan, Mikel Galdosek, 14 urtekin, Handicap 23 du eta 12 urteko Mikel Kataniak oraintxu Handicap 28 ateratzea lortu du. Duten adinerako maila bikaina dute gaztetxo biek, baina beraiek dioten bezalaxe, "txapelketa asko jokatu behar izan ditugu eta baita irabazi ere handicap-a lortzeko". Mikel Galdosek Euskal Herriko txapelketa askotan hartu du parte, baita Espainian eta Frantzian ere. Nagusien txapelketetan irabaztea ere lortu du gainera.

KONTZENTRAZIO HAUNDIA

Golfa aspergarria ote den galdetu diogunean, ezezko borobilez erantzun dute hirurek: "inolaz ere ez". Kanpotik itxura hori ematen duen arren, hasten diren guztiak jarraitu egiten dute. Bereziki oso kontzentrazio handia eskatzen duen kirola da. "Golpe guztietan kontzentrazioa behar da. Era berean kolpe bakoitza zein makilakin egin erabaki behar da". Txapelketa baten iraupena ere kontutan hartzekoa da, bost bat ordutakoa.

Gure gaztetxoak ahal duten denbora gehiena eskaintzen diote golfari, astebukaerero Larrabea joaten dira eta. Hala ere, beste kirol batzuk alde batera uzteko aitzakia ez da izan golfa. Mikel Kataniak eskia egiten du neguan, eta golfa baino gustokoago du gainera. Mikel Galdosek futbole

“Kontzentrazio handia eskatzen duen kirola da”



“Txapelketa asko jokatu eta irabazi behar izan ditugu handicap mailara heltzeko”

jokatzen du Almeneko infantilen taldean, baina golfak gehiago erakartzen du.

Momentuz bere aita baino hobea izatera iritsi nahi du Mikel Galdosek. Kataniaren helburua golfean ahalik eta gehien dibertitzea da, jakina, maila gero eta hobea lortuz.

Bere denbora librean, Jon Galdosek, multi-kirola eta golfa tar-tekaten ditu. Aurten hasi da golfean, bere nahia handicap maila lortzea izanik.

Hiru gaztetxoak kirol desberdin bat praktikatzeaz gain, dibertitzeko momentua eta giro egokia aurkitu dute Larrabeako golf zelaietan. Bertara joateko gogoz eta ilusioz egoten dira behintzat.



Hiru gaztetxoak astebukaera gehienetan joaten dira Larrabeako golf zelaira


INGURUKO GOLF ZELAIK

Euskal Herrian ditugun golf zelai gehienak pribatuak dira. Gipuzkoan esaterako, Zarautzen, Baso Zabal Donostian eta Hondarribin Club de golf San Sebastian daude, guztiak pribatuak. Bizkaian, Getxokoa eta Mungiakoa daude. Larrabea Villa Realen, Zulla Murgian eta Urturi eta Lagran, azken bi hauek publikoak, dira Arabako lautadetarantz zabaltzen direnak. Nafarroak ere eskaintzen ditu golfa praktikatzeko aukerak: Gorraiz Iruñean eta Ulzamakoa. Hala ere, golf zelai gehienak iparraldean daude, Biarritz inguruan.

Golf zelai gehienak pribatuak izatean, kuota garrantzitsua ordaindu behar da bertako bazkide egiteko, beraz, kirol hau egiteko aukera ez da horren zabala. Hauetako asko

gainera, beteta daude eta eguneko edo urteko kuota ordaintzea da bertara sartzeko aukera bakarra. Egia esan, gero eta jende gehiago da kirol hau praktikatu ahal izateko aukera hauek aprobeztatzen dituenak. Larrabeako ka-

suan, egun bateko sarrera, laneguna bada, 5.000 ptakoa da eta astebukaera bada, 6.000 pta. Horretarako ezinbestekoa izango da Handicap maila izatea. Ikastaroak egiteko, berriz, bertako bazkide izan beharko da.



Golf zelai gehienak pribatuak dira

Arabako golf zelai publikoak, elitearen itzalean

Arabako mendialdean, Izkiko parke naturaletik gertu Urturi eta Lagran-eko golf zelai publikoetan, bazkide izan beharrik ez dago kirol hau praktikatzeko.

Golfean jokatzeko gutxi batzuren esku egon da betidanik, kirolik elitistena da berau, eta aipatu bezala elkarte pribatuetan sartzeko kuota ez dira nolanhikoak izaten. Dena den, Euskal Herrian, Arabako lurralde historikoan elitearen itzalean golfean jokatzeko aukera badago. Arabako mendialdean, Bernedotik gertu, Lagran eta Urturiko zelaiak aurki ditzakegu. Euskal Herriko golf publiko bakarrak dira eta bertan posible da bazkide izan gabe kirol hau praktikatzeko. Horretarako, Greena -jokatzeko zelai tarte zulo bati dagokion alokatu besterik ez dago eta bertan pelota eta makilak utziko dizkizue.

URTURIN JOKATZEKO FEDERATUA EGON BEHAR DA

Urturin, astelehenetik ostiralera bitartean jokatu nahi izanez gero, egun bakoitzeko hiru mila pezeta ordainduta nahikoa izango da, dena den, zelai hauetan aritzeko "Handicap", edo nolabaiteko

maila izan behar da eta horrez gain federatua egotea ezinbestekoa da. Urte osoko bazkide txartelak laurogehitabost mila pezeta balio du. Dena den, beste hainbat aukera ere badaude, hilabeteko eta hiruhilabeteko txartel bereziak hain zuzen.

LAGRAN, ELITEAREN BENETAKO ALTERNATIBA

Lagran-en jokatzeko, aldiz, federatzea ez da beharrezkoa izango. Zelai hau ere Izkiko inguru ederrean dago. Aretxabaletatik ordu eta laurdenera, Lagraneko Golf publikoak, aukera bikaina eskeintzen digu kirol hau ezagutzeko. Gasteizetik, Vitoriako mendatea igo eta Ventas de Armentiarra heldu ondoren, ezkerretara egingo dugu eta handik Bajaurira. Arabako Mendialdeko herri txiki honetatik oso gertu dago Lagran. Mila eta hiruehun pezeta ordainduta jolastu ahal izango duzue. Ikastaroak ere badaude, adibidez lau orduetako ikastaro labur batek, lau mila pezeta balio du. Lehen urratsak emateko aukera ona beraz.

Norbaitek kuoten prezioak jakin nahi izango balitu, Aretxagazetara dei dezake.

IV. Pedro Guenetxea Memoriala

IV. Pedro Guenetxea Memoriala antolatu du UDA txirrindulari elkartek datorren ekainaren 6rako. Lasterketa honetan bigarren urteko kadeteek hartuko dute parte.

Egin beharreko ibilbidea honako hau izango da: Aretxabaleta-Almen-Eroski-Epele-Arrasate-Aretxabaleta-Eskoriatza-Aingeru Guarda-

Aretxabaleta-Arrasate-Epele-Arrasate-Aretxabaleta-Almen-Mugarri eta azkenean Durana kalean emango diote amaiera frogari. 60 kmtako froga honi, arratsaldeko 4:30etan emango zaio hasiera Durana kalean. Ondoren, 6:00ak aldera lasterketa amaitzen denean, sari banaketa egongo da leku berean.



Proba 4,30etan hasiko da Durana kalean

Deba Garaiko Eskolarteko IX. Olinpiada

Datorren ekainaren 6an, Deba Garaiko Eskolarteko IX. Olinpiada ospatuko da Kirol-Etxean. Kirol jai hau Deba Garaiko edozein ikastetxetan dabilzan L.H.ko 5. mailako neska-mutilei zuzenduta dago. Eta bere ordutegia arratsaldeko 15:00-etatik 19:00ak arte izango da.

Ekintza hauek 3 esparru ezberdinetan banatuko dira. Kirol etxean adibidez, badminton, rappel-tiro-lina, aerobika, esku pilota, mahai tenisa, ohe elastikoa, boloak, toka eta txantxikua eskeiniko dira.

Igerilekuan eta bere inguruan berriz, ur jolasak, arku tiraketa, scalextric handia eta bizikleta txangoa egin ahal izango dira.

Azken zona bezala, futbol zelaia izango da, non baloi erraldoia, golf, rugby-zapia, floor-ball eta fresbi praktikatu ahal izango den.

Gorriñaren III. Memorialean 9 partehartzaile

Hilaren 16an ospatu zen Gorriñaren III. Memorialean, bederatzi partehartzaile izan ziren. Horietatik hiruk takarradan egin zuten bidea; eta gainontzekoek, aldiz, oinez. Luis Mari Otxoak, Josu Lasagabasterrek eta Gorka Gabilondok sei ordu eta 55 minututako denbora egin zuten korrikan.

Oinezkoek egindako denbora, berriz, bederatzi ordukoa izan zen. Honetan, Oier Aranzabal, Sokorro Unanue, Jose Anjel Antxia, Josetxu Atxaga, Jabier Etxebarrieta eta Lierni Altuna ibili ziren.



Dhaulagiriko gailurrean

Dagoeneko Iñurrategi anaiak lortu dute beraien bederatzigarren zortzi milakoa egitea. Oraingoan, hiru ahaleginen ondoren, Dhaulagiriko gailurra lortu dute.

Espedizio honetako partaideetatik, Felix eta Alberto izan dira gailurra egin duten bakarrak. Hala ere, beste espedizio batean joan arren, Juanito Oiarzabalek ere tontorra egitea lortu zuen.

Felixek adierazi bezala, osasunez oso ondo aurkitzen ziren, eta beraien arteko giroa ere oso atsegina zen. Oso igoera polita izan zela gehitu zuen.

Zapatuan egingo zaie ongi etorria arratsaldeko 8etan.

Japonera joateko proposamena Arenazari

Igor Arenazak Japonera futboleko egitera joateko proposamena jaso du. Printzipioz hitzezko proposamen hau onartu egin du. Hala ere, oraindik ez du kontratu zehatza ikusi, eta eskeintzen zaion guztia ikusi arte, ez du onarpena sinatuko. Dena den gai honen inguruan oraindik ez dago ezer ziurrik.

Kontratua hile honen bukaeran edo ekainaren hasieran heltzea espero da. Japonera joatea onartu ezker, uztailean abiatuko litzateke, abuztuan bertako txapelketak hasten dira eta. Etxean gelditzea onartuz gero, berriz, Eibarren beste urtebeterako kontratua dauka.

Gipuzkoako txapelketan zarpigarren

Pasa den zapatuan ospatutako Gipuzkoako txirrindulari txapelketan zarpigarren postua lortu zuten Fagor Taldeko jubenilek. Taldeko Kontrareloj lasterketa hau Itsasondon burutu zen. Bertan, 20 talde desberdinek hartu zuen parte.

Fagor taldea osatu zuten txirrindulariak, Asier Atxa, Ivan Velasco, Iñaki Llodio, Xabier Ayala eta Xabier Beitia izan ziren.

Iban Sastre

“Fisikoki ondo egoteaz gain, talde lana ere oso garrantzitsua da froga bat irabazteko”

Iban Sastrek 21 urte ditu, eta betidanik gustatu izan zaio txirrindularitza. Afizionatu mailara igotzeko lan handia egin zuen orain dela hiru urte. Lanerako gogo hau mantenduz, afizionatu mailako bere hirugarren denboraldi honetan dagoeneko emaitza ezin hobek lortu ditu.

• Noiztik zabilta txirrindularitza?

Orain dela 7 urte inguru hasi nintzen. Afizionatu mailan aldiz, aurtengoa da hirugarren denboraldia. Lehenengo denboraldia ATE (Arrasate Txirrindulari Elkarte)rekin egin nuen, bigarrena berriz Born Jayrekin, eta egun Iberdrola taldean ari naiz.

• Iberdrolak talde bezala nola funtzionatzen du?

Denboraldi honetan oso emaitza onak lortzen ari gara. Oso giro aproposa dago eta taldean lan egiten badakigu. 14 txirrindularik osatzen dugu taldea.

• Asteaz zenbat entrenamendu egiten dituzu?

Zazpi, egunero aritzen naiz eta.

• Nolakoak dira zure entrenamenduak?

Egunaren baitan dago. Lasterketa baten aurreko eta ondorengo egunetan bi ordu inguruko entrenamenduak egiten ditut. Gainontzekoetan aldiz lau-ukoa. Momentu honetan bizikletan bakarrik aritzen naiz. Neguan, gimnasioa eta korrika ere egiten dut. Urtarilean adibidez, Josemi Elizburu eta biok Castellonera joan ginen entrenatzera.

• Norekin entrenatzen duzu?

Nere entrenatzaileak Alaves taldearen entrenatzaile berberak dira. Beraiek entrenamenduak prestatu eta faxez bidaltzen dizkidate. Gainontzeko nere kontu egiten dut.



• Dietarik jarraitzen duzu?

Ez. Gainera janari aldetik ere ez naiz gehiegi zaintzen. Lasterketa aurretik adibidez pasta jaten dut, baina asteen zehar, etxeko guztiek bezala bazkaltzen dut.


• Denboraldi honetan zenbat garaipen lortu dituzu?

Hiru. Valladolideko bueltan bigarren postua eskuratu nuen. Urrakiko igoeran eta Bidasoa bueltan berriz garaile izan nintzen.

• Iban, nola sentitzen zara?

Lortutako emaitzekin oso gustora nago. Egia esan ez nuen horren ondo ibiliko nintzenik espero. Gogoz sentitzen naiz aurrera jarraitzeko.

Fisikoki ere ondo sentitzen naiz.



Ezin nezake zein ehunekotan nagoen esan, ondo eta indartsu sentitzen naizela baizik. Horrela jarraitzea espero dut.

• Lasterketetan, fisikoki ondo egoteaz gain, argi ibiltzea ere oso garrantzitsua da. Zuk zein momentu aukeratzen duzu eraso egiteko?

Lasterketaren arabera dago, nik neuk aukera ikusterakoan erasotzen dut. Esatekoa da gainera, eraso ahal izateko taldearen laguntza oso baliogarria izaten dela. Urrakiko igoeran adibidez, izan nuen talde lana eduki ez banu, ez nintzatekeen garaile izango. Fisikoki ondo egoteaz gain talde lana ere, benetan garrantzitsua da.

• Zein froga mota da gutxien gustatzen zaizuna?

Erlojuz kontrakoa. Aldapetan berriz, oso gustora ibiltzen naiz.

• Zein da zure hurrengo helburua?

Hilabete honetan lasterketak izango ditudan arren, ez dut “buelta” gehiago izango. Hurrengoa BIRA izango da; “Buelta a Bizkaia”, uztaillean ospatuko dena.

• Nola ikusten duzu profesioletara saltoa?

Ez da samurra. Baina aurrean ez nuen uste honen ondo ibiliko nintzenik, eta lan eginez, denboraldian emaitza onak eskuratzea lortu dut. Lanean jarraitu eta emaitza onak lortuz gero, baliteke nitaz fijaszea. Zergatik ez. Oraindik emateko asko daukadala uste dut.

• Noraino iristea gustatuko litzaizuke?

Hasiera batean nere helburua profesioletara iristea izango litzateke. Bertan egon ondoren, talde bat edo beste, zeinetan ibili ikusi behar ko. Hasieran beintzat, profesioletara helduz gero, helburua beteta dago.

Karramarroak arriskuan

Euskaldunok, inguruko beste hainbat herrik bezala, betidanik izan dugu erreketara joan eta karramarroak harrapatzeko zaletasuna. Zaletasun honek ordea geure geurea den ibaietako karramarroa ia desagertzera eramán du.

Gaur egun, gure ibai karramarroa (*Austropotamobius pallipes*) erreka buruetan baino ez zaigu ageri, duela ez urte gehiegi penintsula osoko sare hidrografikoaren edozein puntutan agertu ohi zenean. Hainbat arrazoi aipa genezake egoera honen errudun gisa: erreken kutsadura, bere ingurunearen suntsipena, gehiegizko esplotazioa...

Amerikanoaren etorrera:

Gure karramarroa nahikoa ugaria ez zela ohartuta, eta noski nola-baiteko "kirol" honek jasan ditzakeen ondorioak aurreikusita, kanpoko karramarroren bat gure ibaietan sartzeko proposamena aurkeztu zen. Horrela ameriketako karramarro gorria (*Procambarus clarkii*) aukeratu eta barra-barra sartu zuten gure uretan. Hasiera batean jende guztia poztu zen, izan ere gure errekek karramarroz gainezka ageri baitziren, baina berehala bertako karramarroei gaixotasun arraroa agertu zitzaion: Afanomikosia. Itxura guztien arabera karramarro gorriak ekarri zuen ameriketatik. Berari kalterik egiten ez bazion ere bertakoarentzat hilgarria zen. Orduantxe hasi ziren ganorazko ikerketak egiten, eta jakin zuten kanpotar hau izatez oso agresiboa ere bazela bai inguruarekiko eta



Ibai karramarroa

baita gure espeziearekiko ere. Horrela Euskal Herrian egunero 3 Km ibai konkistatzen zituen bertako karramarroaren kaltetan.

Soluzioa?

Arazoaz ohartu orduko berandu zen jada. Gure espeziea desagertua zela uste zelarik espezie berria sartu zen gorriari aurre egiteko. Espezie hau seinale karramarroa (*Pascifastacus leniusculus*) da, bera ere amerikarra, eta gaixotasunarekiko erresistentea, baina ez hain agresiboa eta ikuspuntu horretatik gurearekiko nahiko antzerakoa.

Baina gure ibai karramarroa ez zegoen benetan desagerturik, erreka

buruetan gorde zen, karramarro amerikarrak ez baitu ur hotzik atsegín. Han seguru-bizi zen arik eta seinale karramarroa agertu arte, izan ere hirugarren honek ur hotzetan ibiltzeko ez du inolako erreparorik eta frogatu da gaixotasuna transmititzeko ere gai badela.

Ez du beraz etorkizun onik gure ibai karramarroak, ez horixe. Guzti hau gutxi balitz Nafarroa eta Aragoe aldean karramarro berria sartua omen dute furtiboki; australiarra da bera eta izena "Cherax suntsitzailea" du. Zuek atera kontuak.

Mikel Arroiabe

MIREN
Chunak eta berrietasunak
salneurri bereziak
 Murubide, 1 ♦ 943 79 67 97

Frutan eta txarkuterian
 espezialitatea
Angelines
 AUTOZERBITZUA
 Mitarte, 16 • 943 79 61 42

BEGIANDO
optika
 Loramendi, 10
 ☎ 943 79 93 21

Carmen Fernandez
ABOKATUA
 Belorrieta Auzoa, 14 - 4. A
 20550 Aretxabaleta
 Tfnoa: 943 77 05 94
 Faxa: 943 79 65 21




Gotzaia asto gainean

Argazki bitxia aurrean daukaguna. Sendotza elizkizunak ospatu behar zirela eta, 1954ko maiatzaren 24an Gipuzkoako Gotzaia etorri zen herrira. Kataluniarra izatez, Jaime Fout Andrew zuen izena. Kotxe haundi eta dotore batean etorri zen, baina auzoetara igotzeko biderik ez zegoen artean. Hau alde batetik, eta osasun arazoak zirela, bestetik, astoa gertatu behar izan zioten patxadan-patxadan auzoetara igo ahal izateko. Nork esango zuen, Gotzaia asto gainean ikusiko genuena! Baina halaxe gertatu zen.

Garai hartan, baserri gehienetan asto eta zaldiak egon arren, Galartzako Askotixa baserrian zegoen zamari (montura) bakarra. Hauek aita bihotzetik gaixorik izatean, sarri erabiltzen zuten astoa aita kaletik baserrira igotzeko. Gotzaia etorri zen egun hartan, **Luis Gastañaga** Askotixa baserrikoak gidatu zituen gotzaia eta Santa Agedako "Cuatro Vientos" en erositako astoa.

Galartzatik Apotzara bidean ateratako argazki honek, Gellao auzoa erakusten digu atzean. Honelako argazki bat Baster-Alde jatetxean aurkitzen da.

OHARRA: Kontu zaharren txoko honetarako argazki zaharren bila gabiltza. Beraz, argazki zaharrik atal honetan erakutsi nahi izanez gero, Aretxagazetara ekartzea eskertuko genizueke. Kultur etxean gaude.



Zubia
Oinetakoak

Poltsak • zapatak • gerrikoak

Mitarte 14 • ☎ 943 79 16 00 ARETXABALETA
Biteri 1 • ☎ 943 79 66 53 ARRASATE

BERALAN



- ◆ Komunerako altzari eta manparak
- ◆ Ispiludun armairu aurrealdeak
- ◆ Beirate artistikoak
- ◆ Salarako mahaiaik

KRISTALDEGIA

Loramendi 10 ☎ 943 79 81 78
ARETXABALETA

LANA

◆ Aretxabaletako Udalak lau hilabeterako **kultur laguntzaile** bat kontratatu nahi du, egun erdiz lan egiteko. Baldintzak: 18 urtetik gorakoa izatea eta eskola graduatua izatea. Baloratuko da: kultur arloan esperientzia, informatika erabiltze maila, euskara maila eta administrari ikasketak. Epea: ekainaren 3a arte. Instantziak eta kurrikulumak udaletxean aurkeztu behar dira.

◆ Arrasateko Udalak aldi baterako **fotokopiagilea eta informatika monitorea** kontratatu nahi ditu. Oinarriak Arrasateko udaletxean jaso daitezke. Izena emateko azken eguna: 98/6/1.

◆ **Langaiko lan eskaintza**

Barrualdeetako dekoratzailea.
Ref: 6295/3. Goierri.

Sukaldaria. Ref: 8423/1. Elorrio.

Arrain saltzailea. Ref: 8619/1.
Deba Garaia.

Kutzazaina. Ref: 8152/3.
Etxebarri.

Parrila sukaldaria. Ref: 9159/2.
Plentzia-Mungia.

Teknikari elektronikoa. Ref:
9082/2. Donostia.

Giza baliabideetako teknikaria.
Ref: 8518/3. Donostia.

Bost aseguru agente. Ref: 8563/1.
Donostia.



Zure iragarkia honako txoko honetan jarri nahi baduzu deitu 79 01 05 telefonora. Dohainik da.

◆ **Lan eskaintza publikoak**

Artxibo-liburutegiko teknikaria. Ondarroako Udala. Oinarriak: BAO 98/5/13. Epea: 98/6/13

Udaltzaina: 10 lanpostu. Getxoko Udala. Oinarriak: BAO: 98/5/12. Epea: BOEn argitaratzeko zain.

Ekonomi aholkularia. Mairagako Mankomunitatea. Titulazioa: ekonomi lizentziatua edo baliokidea. Oinarriak: NAO: 98/5/6. Epea: 98/6/5.

DENETARIK

◆ Irrati programa baterako munduan zehar ibili den jendearekin kontaktuan jarri nahi dugu. Deitu Arrasate irratiko telefono hauetara: 79 58 40 (erantzungailua) 79 58 77.

◆ Gitarra espainola salgai. Egoera onean. Tfnoa: 79 72 39. Carlos.

◆ Erdi tamainako mendi bizi-kleta salgai. Prezio onean. Tfnoa: 77 08 02.

ETXEBIZITZA

◆ Laredon apartamentua alokatzen da. San Juanetako astean, uztailearen bigarren hamabostaldian, eta irailean. Tfnoa: 79 31 47.

◆ Lokal komertzialak salgai Aretxabaletan. Azalera desberdinekoak (50 m²-tik 200 m²-tara) Toki egokian eta prezio onean. Tfnoa: 77 16 41-79 96 72.

LEHIAKETAK

◆ **Irun hiria XXIX literatur sariak.** Olerkia, eleberria eta saiakera. Euskaraz eta gazteleraz. Epea: uztailearen 15a. Kutxa fundazioa "1998ko Irun Hiria Literatur sariak". Abuztuaren 31 kalea, 30. 20003Donostia. Informazioa: Kutxa fundazioa.

◆ **Ageriko VI. margo lehiaketa Soraluzen.** Maiatzaren 31an. Izen ematea udaletxeko zinegotzi gelan 1998ko maiatzaren 31an, goizeko 9etatik 10etara.

◆ **Euskadiko XVIII. Gipuzkoar Auresku txapelketa.** Maiatzaren 31an Pasai Antxon. Anton Mendizabal trofeoa.

◆ **XI. argazki lehiaketa.** Arrigorriagako Udalak antolatuta. Aurkezteko epea: azaroaren 27a.



Basabe Poligonoa A-15
☎ 943 79 34 28
ARETXABALETA

ITURGINTZA



Tfnoa: 943 79 07 34/79 31 87

Aretxabaletako Udalak egun erdiz lan egiteko **kultur laguntzaile** bat kontratatu nahi du lau hilabeterako.



Baldintzak: - 18 urtetik gorakoa izatea.
- Eskola graduatua izatea.

Baloratuko da: - kultur arloan esperientzia.
- Informatika erabiltze maila.
- Euskara maila.
- Administrari ikasketak.

Epea: ekainaren 3a arte.
Instantziak eta kurrikulumak udaletxean aurkeztu behar dira.

Uda aldera kirola nagusi



M. J. Arretxe

Uda aldera kirola izaten da nagusi alde guztietan. Arratsalde eta ilunkaran Urkulura edo trenbidera joatea besterik ez dago hori ikusteko. Jendea hara eta hona, batzuk takarraran, bizikletan, oinez beste batzuk. Egia esan, eguna luzatzen hasten denean, eta udan bainujantzia jarri behar dela pentsaturik, edozein animatzen da ariketa fisikoa egitera. Osasungarria da gainera, baina jakina, hau ere guztia bezalaxe neurrian egin behar...

Orain bi aste, Euskararen egunean, kirola praktikatzeko aukera bikaina izan zen. Xakean **Joseba Altube** izan genuen maixu, abantaila txiki bat bazuela esan dezakegu, Arlutz xake taldeko jokalaria baita. Hala ere, bere aurkariak gogor ibili ziren. Baietz hauek hurrengoan hobeto jokatu!

Musean emakumeon abilezia agerian gelditu zen **Arantxa Barrutia** eta **Carmen Villar** eskoriatzarrari esker. Emakumeon maila altu utzi zuten eta hemendik aurrera beste Mus txapelketa batzutura

aurkezteko moduan daude. Hauekin batera finala jokatu zutenak **Joseba Urkia** eta **Ion Iñaki Izarzelaia** izan genituen.

Emakumeen bolo txapelketan, bestalde, iazko irabazle bera: **Irati Gorostiza**. Bi garaipen jarraian egin ondoren, gizonezkoen aurka neurtzeko moduan dago.

Ondoren aipatuko ditugun hauek, berriz, Arrasate-Oñati lasterketa egitera animatu zirenak ditugu: **Joseba Larrinaga, Mikel Bengoa, Felis Beltran de Heredia, Juan Antonio Barato, Jabier Mar eta Asier Elkorobarrutia**. Forma bikainean daudela erakusteko gainera, bi aste barru beste froga batean parte hartzeko aukera dute: Eskoriatza-Arrasate kross herrikoian.

Gaurkoan esateko daukagun guztia kirolaren ingurukoa da. Izenburuan bertan garbi utzi nahi izan dut hori. Sentitzen dut kirola hain gustoko ez duzuenontzat, hurrengo notizia ere gai horretan sartzen baita. **Andoni Zubizarretak** agur esan dio Valentzia taldeari, hala ere, oraindik Mundialean bere atezain trebeziak erakusteko aukera izango du. Hortaz ziur gaude! Beste herritar batek, **Igor Arenazak**, futboleko jokatzera Japonera joango den ala ez erabaki beharko du aurki. Oraindik kontratu ofiziala ez du eskuartean izan, baina hemendik bi aste barru jakingo dugu erantzuna.

Berri pozgarriez bukatzeko, **Iñurategi anaien Dhaulagiriko** igoera hortxe daukagu. Zapatuan egingo zaie merezitako ongi etorria arratsaldeko 8etan. Berri ona gaurko honi agur esateko.


Liburutegiko txokoa

Juan zaharra beti ateratzen da bere iloba Maroliña-rekin paseatzera. Berak entzuten daki, eta kontatuko dio bere bizitzaren istorioa plaian barrena doazen bitartean.

Juan Fariasek darabilen hizkera poetikoa oso aproposa da sentimenduak eta bizipenak kontatzeko, dena den, umorea eta ironia ere erabiltzen ditu liburu zoragarri honetan. Liburu hau ez da abentura bila dabilen irakurlearentzako, bestelako emozioak bilatzen dituenarentzat baizik. Kapitulu bakoitzaren haseran Raquel López-ek beste liburuen zitak sartzen ditu eta amaieran liburu hauen inguruko notak agertzen dira irakurleari beste liburu klasiko hauek ezagutzera emanez.

Liburuan bertan 10 urtetik aurrera irakurtzeko liburua dela aipatzen da, baina helduei ere asko gustatuko zaiela gaineratuko nuke nik.

Joseba Lopez de Armentia



Los caminos de la luna

Juan Farias

Ilustrazioak: Alicia Cañas Cortazar

Raquel López-en notak

MAIATZA

30, 31

LIGAKO PARTIDUEN AZKEN EKITALDIA

UDako preferente, lehen mailako kadeteek eta lehen mailako jubenilek datorren astebukaeran jokatuko dute aurtengo ligako azken ihardunaldia.

Preferente taldeak domekan arratsaldeko 5etan jokatu du Ibarran Lazkao taldearen aurka.

Lehen mailako kadeteek

Azkuene izango dute aurkaria arratsaldeko 4,30etan Ibarran.

Lehen mailako jubenilak, berriz, zapatuan kanpoan jokatu du San Patrizioaren aurka.

31

domeka

DEBA ERREKAREN AZTERTZEA

Foru Aldundiak urtero antolatzen duen **Ibailde proiektuaren** barruan **Deba ibaiaren iturburua** aztertuko du Zaraia M.T.ak. Irteera goizeko 9,30etan izango da Nafarroa kaletik.

EKAINA

6

zapatua

IV. PEDRO GUENETXEA MEMORIALA

Arratsaldeko 4,30etan hasiko da proba Durana kalean. Bigarren urteko kadeteek burutuko dute proba. Ibilbidean txirrindulariek bi aldiz igo beharko dute Epele.

DEBA GARAICO ESKOLARTEKO IX. OLINPIADA KIROL ETXEAN

Deba Garaiko eskoletako L.H.ko ikasleei zuzenduta dago. Mota guztietako kirolak praktikatu ahal izango dira bertan: badmington, rappel-tirolina, aerobic-a, mahai tenisa, golf, rugby, floorball...

7

domeka

ARRASATE KIROLAK ESKORIATZA-ARRASATE VI. KROSS POPULARRA

Eskoriatza-Arrasate proba eguerdiko 12etan hasiko da Eskoriatzan. Izen ematea Iturripeko kiroldegian eta Arrasate kirolak dendan. Inskripzioa: 500 pta.

MENDI IRTEERA

Murrukixo M.E.ak **Cruz del Castillora** irteera egingo du. Bazkaltzera Brionesera. Ertaroko jaia dago bertan. Irteera goizeko 8etan.

10

eguztina

elkarriren HITZALDIA

Atxabaltako **elkarri**-ko tailerrak antolatuta hitzaldia egongo da udaletxeko ganbaran arratsaldeko 7,30etan. Hizlaria Tailer Nazionaleko kidea den **Xanti Larreta** izango da. Hitzaldiaren izenburua: **Eraiki gurekin. elkarri** gizarte mugimendua, Eraiki proiektua prestatzen eta eztabaidatzen ari da. Bere helburu nagusia, bake prozesua martxan jartzen laguntzea da.

13

zapatua

HIRU HAUNDIAK

Aste honetan bukatzen da Hiru Haundiak egiteko apuntatzeko epea. Izena lehenbailehen eman behar da. Horretarako zuzendu Murrukixora (943 79 93 74) edo bertako norbaitekin harremanetan jarri.



LOGOPEDIA ZENTRUA


Logopedia eta psikologia tratamendu kliniko eta hezitzaileak haur eta helduentzako.

Erdiko kale, 37-behea
Tel: 943 79 79 46
ARRASATE

ERREKABARREN MERKATAL ZENTRUA

- JUANTXO URDAITEGIA 943 79 75 42
- MARI KARMEN OINETAKO DENDA 943 79 59 85
- IRUDI ILEAPAINDEGIA 943 79 80 90
- MIREIA ARRAINDEGIA 943 79 31 59
- ARAMAIO OKINDEGIA 943 79 64 87
- LEINTZ-ROSI 943 79 78 63
- ERREKABARREN FRUITATEGIA 943 79 96 43

T X I L A R R A



ELIKADURA BEREZIA

Durana, 35
Tfnoa: 943 79 10 15

Loramendi, 9
Tfnoa: 943 79 44 28
ARETXABALETA

GAZTEENTZAKO OPORRALDIAK

Gipuzkoako Foru Aldundiak 18-29 urte bitartekoentzako oporrak pasatzeko ekintza desberdinak antolatu ditu:

- MURILLO DE GALLEGO

(Huesca)

Uztailaren 13tik 19ra. Uretako ekintzak, piraguismoa, eskalada, hidrospeed, rafting...

- LLEIDA, ESTERRI D'ANEU

Uztailaren 19tik 26ra. Rafting, eskalada, ibilaldiak, sakanetatik jeitsiera...

- GUARA

Abuztuaren 3tik 9ra. Arroilen jeitsiera, mendi bizikleta, rappel...

Irteera bakoitzean 25 plaza.

Matrikula: 27.000 pta. Izen ematea ekainaren 1etik 26ra Arrasateko Gazte bulegoan.

- INGELES IKASTEKO EGONALDIA

Segurako aterpetxean. Abuztuaren 1etik 14ra. Matrikula: 48.000 pta. 40 plaza. Astelehenerdik ostiralera sei ordutako klasea, zapatueta lau ordu. Gainontzeko denbora tailer desberdinak egiteko aukera. Izen ematea eta informazio gehiago Arrasateko Gazte bulegoan.

IKASTARROAK

TAICHI IKASTAROA

Ekainaren 6 eta 7an Taichi ikastaroa emango da Zestuako Sastarrain baserrian. Maila guztiak emango dira. Irakaslea: Valentín Zurbano. Izena emateko 71 41 91 telefonora deitu daiteke.

Musika eskolan matrikulazio epea zabalik

Ekainaren 1etik 19 bitartean zabalduko da musika eskolako matrikulazio epea. Hiru urtetik gorakoa izatea beharrezkoa izango da musika eskolan izena eman ahal izateko. Horretarako musika eskolara bertara zuzendu, Otalora kalea 27. zenbakira, arratsaldeko 5etatik 7etara.

Auzoetako mezak:

Ekaina (domeka guztietan)

- Gellaon 11etan.
- Larriñon 12etan.
- Mendiolan ordu 1ean.



**BEHARREZKO
TELEFONOAK**

Aretxabaleta

• Almen	943 71 49 07
• Aretxagazeta	943 79 01 05
• Basotxo	943 77 09 81
• Euskaltegia	943 79 21 68
• Gizarte-Laguntzailea	943 79 10 00
• Hezibide Elkartea	934 79 31 32
• Industrialdea	943 79 62 80
• Institutua	943 79 79 00
• Kiroletxea	943 79 64 61
• Kultur-Etxea	943 79 01 05
• Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
• Kurtzebarri B.H.I.	943 79 57 40
• Liburutegia	943 79 10 00
• Loramendi E.E.	943 77 09 70
• Ludoteka	943 79 05 81
• Murruxixo M.E.	943 79 93 74
• Musika Eskola	943 79 36 50
• Ortzadar	943 79 01 84
• Osasun zentroa	943 79 74 58
• Otalora	943 79 79 99
• Parrokia (Bulegoa)	943 79 18 42
• Pausoka Haur-Esk.	943 77 03 77
• Postetxea	943 79 28 31
• Santa Rita Ikastetxea	943 79 17 00
• Taxi Geltokia	943 79 22 33
• Udal Bulegoak	943 79 10 00
• Udaltzaingoa	943 79 10 52
• Urats Gain	943 79 99 11

Udaltzaingoa

• Arrasate	943 79 14 39
• Bergara	943 77 91 06
• Eskoriatza	943 71 44 07
• Oñati	943 78 04 11

Larrialdiak

• SOS Deiak	088
• Eskualde-Ospitalea (Arrasate)	943 79 53 00
• Ertzaintza	943 79 71 99
• Gurutze-Gorria	943 76 55 76
• Larrialdiak	943 77 10 43
• Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00

Garraioak

• Pesa	902 10 12 10
• Renfe (Gasteiz)	945 23 20 20
• Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15

OPEL



Zerbitzu Ofiziala

■ *Kotxe marka guztien konponketak*

■ *Zerbitzu guztiak*

Basabe Poligonoa, A-1-3 • Tfnoak: 943 79 62 65 / 79 20 86
Fax: 77 17 20 ARETXABALETA



Casilda, izatez Errioxakoa bada ere, egun Arrasaten bizi da. Lezama Bideo-klubekoa dugu bera. Ez da erretzailea, eta denbora librean aerobika praktikatzeko erabiltzen du, beste gauza batzuen artean.

- Zenbat urte Aretxabaletan lanetan? Sei.
- Jende askok alokatzen dituzte pelikulak? Beno, denboraldiaren baitan dago. Neguan udan baino askoz gehiago.
- Eta gehien alokatzen diren egunak? Duda barik zapatua. Asteazken zehar mugimendu lasaia dago.
- Momentu honetan zein da

“Pertsonaren arabera aholkatzen dituzte filmeak”

gehien alokatzen den pelikula?

Normalean filme berrienak dira alokatzen direnak. Momentu honetan, Full Monty, Los Angeles Confidential... Oso entzunak direnak.

• Zuk pelikularik ikusten duzu?

Bai, asko gainera.

• Zein motatakoak?

Espainiar zinea da gehien gustatzen zaidana, baita intrigazkoak ere. Hala ere, danetatik ikusten dut. Egia esan barre egitekoak ez dituzte oso gogoko.

• Zein pelikula aholkatuko zenuke?

Nik normalean pelikulak pertsonaren arabera aholkatzen dituzte. Ez pelikula berbera pertsona guztientzat.

• Zenbat bideo dituzte dendan?

1.300 inguru izango dira.

• Noiz berritzen dituzte?

Astero izaten dituzte filme berriak. Horregatik, lekurik ez dagoenez, zaharrenak kentzen dituzte.

• Zenbat balio du pelikula bat alokatzeak?

300 pezeta.

• Filmeak, etxean ala zinematan?

Bietan. Sarri, bideo klubera filmeak ekarri aurretik, zinematan ikustea gustatzen zait. Horregatik, bai etxean eta bai zinematan ere ikusten dituzte.

• Zer iruditzen zaizu telebistako programazioa?

Ikusle bezala oso txarra. Baina bideo klubeko dendari bezala, zoragarria.

• Zein ordutegi dauka bideo klubak?

Goizez, 11etan zabaltzen dute ordu bata arte. Arratsaldean 8:30etan ixten dute. Zapatutan, berriz, arratsaldeko 9:00ak arte egoten naiz.

• Zer egiten duzue denbora librean?

Egia esan, oso denbora libre gutxi daukat. Hala ere, kirola eta “punto-a” egiteko aprobetxatzen dute.

• Ezkondua zara?

Bai.

• Zein hiru gauza eramango zenituzke irla batetara?

Punto Kruz-a, senarra eta alabak.

• Oporretarako, hondartza ala mendia?

Hondartza

• Animaliak etxean edukitzearen aldekoa zara?

Nik txakur bat daukat. Baina ez naiz oso txakur zalea.

• Musika talde bat?

Rebolver

• Errealak, Atletika ala Alabesa?

Ez naiz futbolzalea. Hiruretako batek irabaziz gero pozik nago.

• Zein pelikulako protagonista izatea gustatuko litzaizuke?

“El Paciente Ingles”eko adibidez.

KOMIKIA

EGUNEKOTUAK GAUDE JADA

Mikel Arroiabe



AUDA TXARRA ETA OTREBOR

TABERNA eta JATETXEEN GIDA

Bedarreta taberna

Bedarreta

Beti bezeroen zerbitzura

Otalora, 19 ♦ Tfnoa: 79 20 89

Zaraia taberna

MANTEKA
ANAIK

Goizeko 5,30etatik
zure zerbitzura

Araba Ibilbidea, 20 • 79 88 95

Artano taberna

Herriko
plazan

ARTANO

Girorik onena

Herriko plaza, 3 • 79 62 75

Josu harategia

- *Urdaitegia-Gozotegia*
- *kroasantegia*
- *Gertatutako janariak*

Josu Harategia

Mitarte, 1 • ARETXABALETA
Tfnoa: 77 03 08

Urbaltz taberna



Mitarte, 21 behea
Tfnoa.: 79 79 79
ARETXABALETA

Matikua

Matikua

Jatetxea eta taberna

Azatza auzoa • 79 16 68

Baster alde jatetxea



Sasoiko
jakiak
giro one-
nean

Galartza auzoa
☎ 79 24 58
ARETXABALETA

Express akeitegia

Express
akeitegia

Zure gustoko giroa

Santa Kurtz, 16
ARETXABALETA ☎ 79 23 43

Goyaran erretegia



GOYARAN ERRETEGIA
♦ Parrila espezialitatea

Solohaundi-8 ARETXABALE-
TA ☎ 79 68 57


Jose Mari bodegoia

Eguneko
menua

Nafarroa, 6
Tfnoa: 79 20 45
Aretxabaleta

Jose Mari
bodegoia

Haizea taberna



Mitarte, z/g • ARETXABALETA
Tfnoa: 79 85 57

Izotz taberna

Zure gustoko giroa

IZOTZ
TABERNA

Mitarte, 16 • ARETXABALETA
Tfnoa: 79 73 65

Dorleta taberna

Dorleta

Bezeroen zerbitzura

Loramendi 8 • ARETXABALETA
☎ 79 94 15

Mendiola erretegia



♦ Bazkari
eta afariak

Asteleheneretan
itxita

Mendiola auzoa • Eskoriatza


Mitarte Garai



Arientza auzoa
ARETXABALETA
Tfnoa: 79 17 51

Mondeo

Liderrak prezio-kalitatean



Norbaitek Mondeo bat daukanean, 4 edo 5 ateduna, nahiz eta wagon delakoa, edozein ibilbide egiten zaio laburregia. Izan ere, gidatzeak sortzen duen zirrarez benetan gozatzen dutenek, Mondeo batekin inoiz baino gehiago gozatuko bantte errepideaz. Duen zehaztasunagatik, leuntasunagatik, egonkortasun berebizikoagatik, galga ematerakoan duen erantzunagatik, isiltasunagatik, bukatze malhagatik eta, noski, bere itxura erakaragarriagatik. Mondeo batekoiz frogatu ez duten horietakoa bazara, orainxe duzu bat gidatzeko aukera.

hizegi dezu
902 442 442

www.ford.es

RS 24V 170CV 3.500.000 pta

GHIA 16V 130CV 2.800.000 pta

GHIA TD 90CV 2.700.000 pta

CLX 16V 115CV/TD 90CV 2.350.000 pta

**DEBA GARAIKO
KONTZESIONARIO
OFIZIALA**

MUGARRI

